



AMIA

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ane Nogales, Maddi Gonzalez, Igone Fernandez eta Ainhoa Lakuntzak osatzen dugu AMIA enpresa. Haur hezkuntzako goi mailako gradua ikasten ari garenez, gure produktua gure ikasketari bideratuta dago.

Enpresa honen produktua Pikler sehaska motorduna da, non honen helburua haurra lokartzea izango den mugimendu ezberdinen bitartez. Ideia hau sortu dugu, betidanik sehaska tradizionalak ezagutzen ditugulako eta produktu honek abantaila desberdinak izango baititu bezeroentzat, zehazki, hezitzaile edo haur txikiak dituzten gurasoentzat. Pikler sehaska hartu dugu oinarri bezala, metodologia ezaguna delako eta hainbat eskola eta haur eskoletan erabiltzen delako. Gure ideia, helduen gorputz mugimendua gutxiagotzea eta haurraren loa erraztea da (musikaren bidez, mugimenduen bidez...). Honako produktu hau egurrez eginga dago eta haurraren mugimendu librea ahalbideratzen du.